



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal buru ordea

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

zinegotziak

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2017ko martxoaren 29an, arratsaldeko 19:30tan, eta Udaleko alkate udalburu ordea, Aitziber Abasolo de la Peña izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak. Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA.
JUSTIFIKAPENA

PREMIATASUNAREN

Alkate ordeak, hitza harturik, dio:

Premiatusunezko bilkuraren justifikazioa, Irunzubi eremurako arau ordezkoen aldaketa puntual egiteko lanak bideratu beharra beharra da.

Premiatusunezko bilkura egiteko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BIGARRENA.- LIZARTZAKO UDALA ETA NORTINDAL SEA PRODUCTS S.L.-ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Idazkaritzak 2017ko martxoaren 29an egindako txostena ikusi da, Lizartzako Udala eta Nortindal Sea Products S.L.-ren artean, elkarlanean, Irunzubi Eremurako Arau Ordezkoen Adaketa Puntuala egiteko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2017ko martxoaren 29an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2017ko martxoaren 29ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta Nortindal Sea Products S.L.ren artean, elkarlanean, Irunzubi Eremurako Arau Ordezkoen Aldaketa Puntuala egiteko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

Lizartzan, 2017ko Martxoaren 31n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

ALDE BATETIK: AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA Andrea, Lizartzako (Gipuzkoa) Udaleko Alkate-Lehendakari ordea den aldetik.

BESTE ALDETIK.- EVA ALTOLAGUIRRE LOPEZ andreak, adin nagusikoak, Donostiako bizilagunak, Zubiaurre Pasealekuko 54 1. D-n helbidea duenak, eta 15.999.924-C zk.ko NAN duenak, B-20.604.054 zk.ko IFK duen eta Lizartzako (Gipuzkoa) Irunzubiko Poligonoan 4 eta 5 zk.ko pabiloian egoitza duen NORTINDAL SEA PRODUCTS, SL enpresaren izenean eta ordezkartzan esku hartuz

Guztiok elkarri aitortzen diote, hitzarmen hau egilesteko beharrezko eta nahikoa den legezko gaitasuna, eta guzti hori hurrengo hauetan oinarrituz

AURREKARIAK

I.- EVA ALTOLAGUIRRE LOPEZ Andreak, daukan ordezkartzan, A.7. IRUNTZIALDEA eremurako Arau Ordezkoen aldaketa puntuala egiteko proposamena luzatu dio Udalari, Eremu horretan eraikigarritasuna gehitzeko helburuarekin, honezkero eraikita dauden pabiloien solairuen arteko eraikigarritasunaren gehikuntzaren bitartez, Eremuko, egiturazko antolamenduaren aldaketa gehiegi eragin gabe.

II. Ekimena Lizartzako Udalak ongi jaso duela, baina, eraikigarritasunaren gehikuntza horren irismena finkatu eta mugatu gehar dela ulertzen du, hala nola aldaketa burutzeko kudeaketaren erantzukizuna ezarri Eremuko jabeei.

III. A.7. IRUNTZIALDEA Eremuko hirigintza-fitxak, lursailen erabilpen industrialia ezartzen du, 20.384,44 m²ko eraikitako gehienezko azalera osoarentzat, 16.987 m²



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

gehinezko okupazioa ezarriz plantan eta %20 soilairuen artean (3.397,44 m²), eta 10,00 m-ko gehienezko altuera, baldin eta eremu osoa eraikita badago.

IV.- Eraikigarritasunaren gehikuntza horrekiko interesak, eraikigarritasunaren gehikuntza du helburu, soilairuen arteko eraikigarritasunaren %100 lortu arte. Horrela eremua, 20.384,44 m²-ko Eraikitako gehienezko azalera izatetik, 33.974 m²-ko eraikitako gehienezko azalera izatera pasako da.

V.- Aurreikusitako aldaketa puntualak, era berean, erantzuna eman behar dio, hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko, Euskal Autonomia Erkidegoko 123/2012 zk.ko Dekretuari, izan ere, eraikigarritasuna handitzearen ondoriozko zuzkidura-jarduketa baten aurrean gaude.

VI.- NORTINDAL SEA PRODUCTS, S.L, A.7. IRUNTZIALDEA Eremuko jabea denez, eta aurreikusitako aldaketa puntualaren kudeaketarako ekimena aurrera eramateko interesa duenez, eta aldi berean, Lizartzako Udala aldaketa puntualarekin bat datorrenez, alde biek HITZARMEN hau sinatzen dute honako hizpaketa hauei jarraituz.

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- Lizartzako Udalak, Lizartzako planeamenduaren Arau Ordezkoen A.7 Eremuko –IRUNTZIALDEA- eraikigarritasuna gehitzeko aldaketa puntualaren izapidetzea eta ondorengo onespina egitea onartzen du. Eraikigarritasunaren gehikuntza, gaur egun existitzen diren pabilioietan garatutako jarduera nagusiarekin lotutako solairuarte azaleraren gehikuntzaren bitartez egingo da.

BIGARRENA.- A.7 Iruntzialdea Eremuko AAOO-en aldaketa puntuala. Planeamendu Orokorren zuzeneko exekuzioa da eta aldaketa, dagoeneko existitzen diren eraikinen solairuarterko azaleraren eraikigarritasun gehikuntzaren egiturazko antolamenduari soilik eragingo dio, gaur egun eraikitako gehienezko azaleraren 20.384,44 m²-tatik etorkizunean eraikiko diren gehienezko azaleraren 33.974 m² pasatuz, Iruntzialdeako A.7 Eremuko fitxa urbanistikoan ezarritako gainerako xehetasunak edo determinazioak mantenduz.

HIRUGARRENA.- AAOOen Iruntzialdea A.7 Eremuko aldaketa puntualaren proiektuko erredakzioa, gaurko eta etorkizuneko jabeen kargura izango da, hasiera batean, NORTINDAL SEA PRODUCTOS S.L enpresari ahalmena emanaz bere erredakziorako egokiak ikusten dituen teknikariak izendatu eta etorkizuneko aldaketarengatik eratorritako diren erredakzioa zein izapiderengatik gastu guztiak onartuko ditu.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Planteatutako aldaketa dela eta, Eremuko gainerako jabeak onura bat izan dezaketela kontutan hartuta, eraikigarritasunaren gehikuntza suposatuko luken baimen eskaera aurkeztuko balitz, Udalak, NORTINDAL SEA PRODUCTOS S.Lek ordaindutako kopuruak gainontzeko jabeei reperkutitu edo eragingo die. Gastuaren eragin hau, lizentziak jasotzen duen eraikigarritasunari lotuta egongo da eta eraikigarritasun gehikuntza guztiaren proportzioan ezarriko da. Baimena ematen den unean, baimenaren jabe onuradunak Udalari ordainduko dio eta ondoren, Udalak NORTINDAL SEA PRODUCTOS S.L dagokion kopurua emango dio.

LAUGARRENA.- Egingo den Arau Ordezkoen aldaketa puntualak, indarrean dagoen estandar urbanistikoaren araudiaren aplikazioa kontuan hartu behar du, eta Eremu beraren goia jotzeak ondorioztatutako bere kokapenaren ageriko ezintasunaren aurrean, estandarrak dagokion zenbateko ekonomikoarengatik ordezkaturia izango da, Udalak ezarritako Lurzoruko Udal Ondarearen kontuan ingesatuz.

Estandar urbanistiko hauen betetzeak, exekutatu den zuzeneko jarduera bakoitzarengatik indibidualki zenbatuko da eta Eremuaren osotasunean gehitu den azalarekiko proportzionala izango da. Ondorioztatuko den kopurua, eraikigarritasunaren gehikuntzak sortutako baimena jaso duen jabe bakoitzak ordaindu beharko du.

BOSTGARRENA.- Hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan erkidegoak parte hartzekeari dagokionez, zuzkidura jarduketa denez, aldez aurretik industria-erabilera zuen lursailaren eraikigarritasunaren gehikuntzaren ondoriozkoa, Lizartza Udalari laga behar zaion eraikigarritasunaren gehikuntzaren %15aren balioa diru bihurtuko da, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 27.4 artikulua xedatzen duen bezala, 11/2008 legearen eta etxebizitzari buruzko 3/2015 legearen bitartez aldatua izan dena. Administrazioaren hirigintza-jarduerak lursail eraikigarriaren gaineko jabari osoa ematen ez duenez, lagapen hau 44,58 €/m²-ko eskudiruzko zenbatekoarekin ordezkaturia da (Arau Ordezkoen aldaketa puntualeko dokumentuan jasotakoaren arabera, zenbateko hau aldatua izan ahalko da)

Eraikigarritasuna handituko duen eremuko jabeek ere, baimena emateko momentuan, Hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren gainbalioetan erkidegoak parte hartzekeari dagokion zenbatekoa ordainduko dute, eskatutako eraikigarritasunaren gehikuntzaren proportzioaren arabera.

SEIGARRENA.- 2/2006 legearen 78 eta 79 artikulua eta Hirigintzako estandarren, uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 7. Artikuluak xedatzen dutena kontutan hartuta,



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

estandarren Dekretuak hiri-lurzoru finkatugabeko Eremuetan zuzkidurentzat eta sistema lokalen sare ekipamenduetarako ezarritako lurzoru erreserba partzial zein osoki betetzea ezinezko denez, 123/2012 Dekretuak 7.3 artikulua xedatzen duen moduan ekonomikoki konpentsatuko da.

Gehituko diren eraikigarritasun m² bakoitzeko konpentsatuko den kopurua, Eremu guztizko azaleraren % 6an baliokidea edo uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuko 6.2 artikuluko a) atalak ezartzen duen berdegune eta espazio libreerarako lurzoru erreserbarengatik zuzkidura jarduera.

Aparkalekuen kasuan, uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuko 6.2 artikuluko b) atalean xedatutakoa beteko da.

Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuko 6.2 artikuluko c) atalak zehazten duen moduan, Eremuan dauden berdeguneen, landaretarako estandarrak zehaztutako 100 m² bakoitzeko zuhaitz baten landatzea bete beharko da.

Eraikigarritasuna handituko duen eremuko jabeek, baimena emateko momentuan, Udalak landatutako zuhaitz eta zuzkidurei dagokien kopurua ordainduko dute.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honen aurreikuspenak baliozkoak eta indarrekoak hartuko dira eragindako jabeak edozein izanda ere. Eta salmentarik edo bizi arteko eta intervivos eskualdatzerik balego, lehengo jabeak jabe berriengatik subrogatuak geldituko dira, Hitzarmen honetan adierazten dena transmisio-tituluan jasoaz.

ZORTZIGARRENA.- 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Hitzarmenaren baliotasuna, zehaztutako Lizartzako Arau Ordezkoen IRUNTZIALDEA A.7 Eremuaren aldaketa puntualaren balizko onarpenari baldintzatuta egongo da eta zehaztutako baldintzetan onartzen ez bada Hitzarmena baliorik gabe geldituz.

BEDERATZIGARRENA.- Sustatzaileak, Lizartzako herrialdean enpleguaren aldeko eginbideak egiteko konpromezua hartuko du, industria-pabiloiaren handitzeak zonaldeko bizilagunen kontrataziorako sortutako lan-eskaintza posibleen arteko bitartekotza bultzatuz.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen honen izaera juridiko-administratiboa da, eta interpretaziotik, aldaketatik edo ebazpenetik eratorritako edozein gatazka udalak berak ebatziko du. Haren erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta horien



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legean ezarritakoari jarraiki

Eta azaldutakoarekin erabat ados daudela adierazteko, eta osorik eta zehazki betetzeko ondorio bakarrarekin, alde biek hitzarmen hau izenpetu dute bi aletan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortziak laurdena gutxiagotan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATE ORDEAK
Izpta: Aitziber Abasolo de la Peña

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia